

**NOTA DE PRENSA****UDAL ETXEBIZITZAK ERAKUNDEAK 7,5 MILIOI EURO  
SARTU DITU BANKU ETIKOAN MIKROKREDITUAK  
SUSTATZEKO**

- **Udal sozietateak bost milioi euro sartu ditu BBK Solidarioko kontu batean, eta, beste bi milioi eta erdi euro, Fiaren. Erakunde biek gizarte etekinak dituzte helburu, eta mikrokredituak ematen dizkiete kredituok behar dituzten pertsoneri, familia beharrak asetzeko edo gizarteratze nahiz laneratze proiektuak garatu ditzaten.**
- **Udal Etxebizitzak erakundeko maizterrek, baita udal etxebizitza bat erosi dutenek ere, mikrokredituak eskuratzeko aukera izango dute, oso interes baxuekin. Kredituok hipoteka-kredituak, ordaindu gabeko errentak eta euren gizarteratzea ahalbidetzen duten beste jarduera batzuk finantzatzeko erabili ahal izango dira.**

**Bilbon, 2010eko otsailaren 4an**

Bilboko Udal Etxebizitzak erakundeak 7,5 milioi euro sartu ditu "banku etikoa" deritzonaren finantza erakunde bitan. Banku mota hori ezberdina da gaur egunekoan aldean, izan ere, finantzatzen dituen proiektuen izaera eta bere inbertsioak arautzen dituzten printzipio etikoak ere ezberdinak dira. Zehazki, Udal Etxebizitzak erakundeak bost milioi euro sartu ditu BBK Solidarioa izeneko kontuan, eta bi milioi eta erdi euro, berriz, Fiaren.

"Errentagarritasun ekonomikoaz gainera, banku etikoak gizarte eta ingurumen etekinak ditu helburu. Halaber, txirotutako edota bazterkeria arriskuan dauden pertsoneri mikrokredituak ematen dizkie, autoenplegurako proiektuak bidera ditzaten", adierazi du Julia Madrazok, Udal Etxebizitzak erakundearen presidente eta Bilboko Udaleko alkateordeak. Udal arduradunak zehaztu duenez, zergak sei hilabetera ordainduko dira, eta, epe horren ondoren, Udal Etxebizitzak erakundeak egindako inbertsioa berreskuratuko du, finantza-merkatuaren eboluzioaren arabera sortutako interesekin batera. Julia Madrazok, halaber, gaineratu du gauzatutako finantza eragiketak ahalbidetuko duela gordailu solidarioak mikrokreditu bihurtzea. Modu horretan, beharrezkoa duten pertsonak erabili ahal izango dituzte, baita udal etxebizitzetako maizterrek ere, "oso preziatua dena egungo krisi ekonomikoa ikusirik".

## **Erraztasunak mikrokredituei esker**

Zentzu horretan, konprometitutako finantza erakundeek mikrokredituak emango dizkiete maizterrei eta udal etxebitza zaharretako jabeei, oso interes baxuan. Azken horiek higiezinak berritzeko eta etxebizitzaren hipoteka-maileguren edo mailegu pertsonalen ordainketa finantzatzeko erabiliko dituzte; lehenengokoek, aldiz, errentak ordaintzeko erabiliko dituzte, baita euren gizarteratzea erraztu ditzaketen jarduerak finantzatzeko ere.

Banku etikoak oso interes baxuan ematen dituen mikrokreditu gehienek baliabiderik gabeko familien beharrei edo gizartetik baztertzear daudenen beharrei aurre egiteko balio dute. Banku solidarioak, halaber, gizarte talde ahulei zuzenduriko enpresa proiektuak finantzatzen ditu. Kasu horretan, proiektu bideragarriak egitean datza, finantza erakunde tradizionalen laguntzarik gabe.

### **BBK Solidarioa**

BBK Solidarioa BBKren ekimenez sortutako fundazioa da. Aurrezkiei erabilera sozial arduratsua emateko beharra sentitzen duten pertsonen topagunea da, baita ohiko finantziazio bideak baliatzeko aukerarik ez duten hiritarrena ere. 2008an, BBK Solidarioak 268 gizarte proiektu finantzatu zituen, eta 5,3 milioi euro eman zituen gizarteratze enpresei zuzenduriko finantza laguntzako 23 eragiketatan. Era berean, mikrokredituak eman zituen milioi bat euroko zenbatekoan, 2007an baino %11 baino gehiago.

### **Fiare, Banca Popolare Etica**

Fiare fundazioa (Inbertsio Aurrezki Arduratsua) irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta Bilbon du egoitza. Banca Popolare Etica erakunde italiarrak Espainian duen eragilea da. 2008an, Fiarek 8,5 milioi euro inbertitu zituen proiektu solidario ezberdinak eta nazioarteko kooperazio proiektuak finantzatzeko. Hirurehun erakundek baino gehiagok modu zuzenean parte hartzen dute bere programetan.

[www.bilbao.net/viviendas](http://www.bilbao.net/viviendas)

**UDALA • AYUNTAMIENTO**

Prensa Kabinetea – Gabinete de Prensa

**BILBOKO UDAL ETXEBIZITZAK ERAKUNDEA**

Tel.: 94 420 52 15 / 688 88 02 28